ASTE NAGUSIA 2023 SEMANA GRANDE

Donostia/San Sebastián

# ASTE NAGUSIKO FOOD TRUCK-AK 2023 (bereziki edariak)
# FOOD TRUCKS (principalmente bebidas) SEMANA GRANDE 2023

## PARTE-HARTZAILEAK HAUTATZEKO DEIALDIA
## CONVOCATORIA PARA LA SELECCIÓN DE PARTICIPANTES

Aste Nagusia 2023ren harira (abuztuak 12-19, biak barne), Donostia / San Sebastián Festak-ek deialdi bat luzatzen du bereziki edariak salduko dituzten gehienez 4 Food Truck jartzeko guneak eskainiz.

Gune hoiek, parte hartzeko interesa agertu ondoren 2023ko Aste Nagusiko antolatzaileek aukeratutako Food Truckei eskainiko zaizkie.

Food Truck esleipendunak hautatzeko, aldez aurretik dokumentazioa aurkeztu beharko da, eta honako irizpide hauen arabera egingo da:

### HAUTAKETAREN OINARRIAK

1. **Parte hartzeko eskaera:** Ferian parte hartzeko eskaera egin dezakete kalean elikagaiak egin, saldu eta/edo sustatzen dituzten pertsona fisikoek zein juridikoek, Food Truck delakoak erabiltzen badituzte horretarako.

2. **Aurkeztu beharreko dokumentazioa:** Eskaera aintzat hartua izan dadin, ondoko dokumentuak aurkeztu beharko dira, halabeharrez, **2023ko apirilaren 21eko 13:30ak baino lehen**:

   - “**Preinscripción**” izeneko eskari-orria, beteta. Orria Donostia / San Sebastián Festak-ek emango du.
   - **Ibilgailu baten bidez jatekoak eta/edo edariak saltzeko enpresak duen Osasun Erregistroaren kopia.**
   - Prestatutako ibilgailuaren argazkiak, ekitaldiren baten gauzatzearen barruan.
   - Salgai egongo diren produktuen zerrenda.
   - Enpresaren curriculuma.

Con motivo de la Semana Grande 2023 (12-19 de Agosto, ambos incluidos) Donostia/San Sebastián Festak tiene la intención de conceder un máximo de 4 espacios para instalar Food Trucks para venta de bebidas principalmente.

Los espacios se concederán a las Food Truck que habiendo mostrado su interés en participar sean seleccionadas por la organización de la Semana Grande 2023.

El proceso de selección de las Food Trucks adjudicatarias se realizará previa presentación de la documentación y en base a los criterios que a continuación se indican:

### BASES DE SELECCIÓN

1. **Solicitud de participación**: Podrán solicitar la participación en la feria todas aquellas personas físicas o jurídicas que se dediquen a la producción, comercialización y/o promoción de alimentos en la vía pública, utilizando para ello las denominadas Food Trucks.

2. **Documentación a presentar:** Será condición previa sine qua non para la toma en consideración de la solicitud la presentación de la documentación que a continuación se indica, **antes del día 21 de Abril de 2023 a las 13.30 horas**:

   - Solicitud de participación en impreso denominado “**Preinscripción**” facilitado por Donostia/San Sebastián Festak
   - **Copia del Registro Sanitario autonómico de la empresa para la venta ambulante en vehículo de alimentos y/o bebidas.**
   - Fotos del vehículo acondicionado durante el desarrollo de un evento.
   - Carta de productos que pondrán a la venta.
   - Curriculum de la empresa.

IFK-CIF Q2000541I



**Donostia / San Sebastián Festak**
Konstituzio plaza, 1 • 20003 Donostia / San Sebastián
tel (0034) 943 481 168 • faxa 943 481 177
donostiakofestak@donostia.eus
www.donostiakultura.eus/festak

3. **Aukeraketa:** Horretarako osatutako epaimahai batek aukeraketa egingo du, aurkezturiko eskari guztien artean. Ondoko irizpideak hartuko ditu aintzat:

   1. Edarien eskaintzaren osaera eta barietatea (alkoholarekin edo alkoholik gabe)
   2. Ingurumena errespetatzen duten materialak erabiltzea (edalontzi berrerabilgarriak, biodegradagarriak…)
   3. Oinarri hauetako 1.2 baldintzan jasotako borondatezko ordutegian zerbitzua eskaintzeko prestasuna.
   4. Food Truckaren estetika

Emakida hutsik gera daiteke, baldin eta eskabidea aurkezten duen enpresa batek ere ez baditu emakidarako ezarritako irizpideak betetzen.

5. **Emaitzaren jakinarazpena:** Antolakuntzak balorazioaren emaitza jakinaraziko die aurre-hautaketan parte hartzen duten Food Truck-ei, eta hautatutakoei azokan parte hartzeko jarraitu beharreko prozesua adieraziko die.

**Azokan parte hartzeak ondoren adierazten diren oinarriak eta baldintzak onartzea dakar:**

3. **Proceso de Selección:** Un jurado nombrado al efecto realizará la selección entre todas las solicitudes presentadas. Los criterios que tendrá en cuenta serán los siguientes:

   1. Composición y variedad de la oferta de bebidas (con y sin alcohol…)
   2. Utilización de materiales respetuosos con el medio ambiente (vasos reutilizables, biodegradables…)
   3. Disponibilidad para ofrecer el servicio en el horario voluntario recogido en la condición 1.2 de estas Bases.
   4. Estética de la Food Truck.

La concesión podrá quedar desierta si ninguna de las empresas que presenten su solicitud cumpliese los criterios establecidos para la concesión.

5. **Comunicación del resultado:** La organización comunicará a las Food Trucks participantes en la preselección el resultado de la valoración, indicando a las seleccionadas el proceso a seguir para participar en la feria.

**La participación en la feria supone la aceptación de las bases y condiciones que a continuación se indican:**

IFK-CIF Q2000541I



**Donostia / San Sebastián Festak**
Konstituzio plaza, 1 • 20003 Donostia / San Sebastián
tel (0034) 943 481 168 • faxa 943 481 177
donostiakofestak@donostia.eus
www.donostiakultura.eus/festak

ASTE NAGUSIA 2023 SEMANA GRANDE

Donostia/San Sebastián

# ASTE NAGUSIKO FOOD TRUCK-AK 2023 (bereziki edariak)
# FOOD TRUCKS (principalmente bebidas) SEMANA GRANDE 2023

## PARTE HARTZEKO OINARRIAK ETA BALDINTZAK
## BASES Y CONDICIONES DE PARTICIPACIÓN

IFK-CIF Q2000541I

### PARTE HARTZEKO OINARRIAK

1. **Inskripzioa:** Hautatutako pertsona fisikoek edo juridikoek parte hartu ahal izango dute azokan.

2. **Kopurua:** gehienez 4 leku esleituko dira.

3. **Aurkeztu beharreko dokumentazioa:** Parte hartu ahal izateko ondoko dokumentuak aurkeztu beharko dira, **maiatzaren 15eko 13:30 orduak baino lehen**:

**DOKUMENTAZIO OROKORRA**

- Eskatzailearen NANaren fotokopia.
- Bide publikoan eginiko janari salmenta jarduerak estaltzen dituen erantzukizun zibileko aseguruaren kontratazioa egiaztatzeko agiria (Aseguru etxearen sinadurarekin eta zigiluarekin).
- Ekonomia jardueren gaineko zergaren kopia.
- Ordain fiskaletan 2023an egunean egotearen ziurtagiria.
- Ordain sozialetan 2023an egunean egotearen ziurtagiria.

**OSASUN ARLOKO DOKUMENTAZIOA**

Donostiako Udaleko Osasun Sailak eskatzen duen eta aukeraketa egin ondoren eskuratuko den osasun-dokumentazioa.

Ez dira onartuko osatu gabe eta/edo oker beteta dauden inprimakiak.

**IBILGAILUAREN DOKUMENTAZIOA**

- Ibilgailuaren fitxa teknikoa
- Food Truck-aren tentsio baxuko instalakuntzaren memoria teknikoa
- Planoa (instalakuntzak, harraskak, ur garbien eta zikinen depositaak…).

### BASES DE PARTICIPACIÓN

1. **Inscripción:** Podrán participar en la feria las personas físicas o jurídicas previamente seleccionadas.

2. **Número:** Se adjudicarán un máximo de 4 espacios.

3. **Documentación a presentar:** Será condición para la adjudicación de una plaza la presentación de la documentación que a continuación se indica, antes del día **15 de Mayo de 2022 a las 13.30 horas**:

**DOCUMENTACIÓN GENERAL**

- Copia del D.N.I. del solicitante.
- Certificación acreditativa de contratación de seguro de responsabilidad Civil con cobertura de actividades de venta alimentaria en la vía pública (firmado y sellado por la Aseguradora).
- Fotocopia del impuesto de actividades económicas.
- Certificado de estar al corriente en el pago de sus obligaciones fiscales en el año 2023.
- Certificado de estar al corriente en el pago de sus obligaciones sociales en el año 2023.

**DOCUMENTACIÓN SANITARIA**

Documentación sanitaria exigida por el departamento de Sanidad del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián y que se facilitará una vez hecha la selección.
No se aceptarán impresos incompletos y/o mal rellenados.

**DOCUMENTACIÓN DEL VEHÍCULO**

- Ficha técnica del vehículo
- Memoria técnica de la instalación de baja tensión de la Food Truck.
- Plano (instalaciones, lavamanos, depósitos aguas limpias y sucias…)

- Makina eta ekipoen zerrenda.
- Ibilgailuaren barrualdeko instalazio guztia ikusteko moduko argazkiak.

4. **Kokapena:** Food Truckak Saguesen kokatuko dira, Aste Nagusiko kontzertuen agertoki nagusian.

5. **Salneurria:** Esleipendun bakoitzak Aste Nagusiak iraungo duen 8 egunengatik ordaindu beharko duena da:

   (125€/eguna) 1.000€ + % 21eko BEZa = **1.210€** Ordutegia **17:00etatik 02:00etara** bada

   (236,50€/eguna) 1.892€+%21%eko BEZa = **2.289€** Ordutegia **12:00etatik 02:00etara** bada

**PREZIOA <u>ANTOLAKUNTZAK FERIAN PARTE HARTZEA ZIURTATU AURRETIK</u> ORDAINTZEAK EZ DAKAR ESKAERAREN ONARPENIK.**

- Listado de maquinaria y equipos
- Fotos del vehículo en las que se vean todas las instalaciones.

4. **Ubicación:** Las Food Trucks se ubicarán en Sagüés, escenario principal de conciertos de Semana Grande.

   **Precio**: El precio a abonar por cada adjudicatario por Food Truck por los ocho días que dura la Semana Grande será de:

   (125€/día) 1.000€ + 21% IVA = **1.210 €** para horario de apertura **de 17:00 a 02:00h.**

   (236,50€/día) 1.892€ + 21% IVA = **2.289 €** para horario de apertura **de 12:00 a 02:00h.**

**EL ABONO DE LA CUANTIA DEL PRECIO <u>ANTES DE LA CONFIRMACION DE LA PARTICIPACIÓN EN LA FERIA POR PARTE DE LA ORGANIZACIÓN</u> NO SUPONE LA ACEPTACIÓN DE LA SOLICITUD.**

IFK-CIF Q2000541I

## <u>BALDINTZAK</u>

### 1. <u>Antolaketa baldintzak</u>

1. **Muntaia eta desmuntaketa:** Muntaia 2023ko abuztuaren 12an egingo da, goizeko 12etatik aurrera. Desmuntaketa abuztuaren 20ko 12:00ak baino lehenago egingo da.
   Nahi izanez gero egunero muntatu eta desmuntatu daiteke.

2. **Food truckaren ordutegia**:
   Abuztuak 12-19: Derrigorrezko irekiera: 17:00-02:00. Borondatezkoa: 12:00 – 17:00.

3. Jaiaren irudi hobea erdiesteko, postuaren **estetika** zaindu egingo da. Food Truck-a eta inguraldea apaintzen saiatu behar da.

4. Ezingo da antolatzaileek mugaturikoa baino **espazio** handiagorik erabili.

5. Food Truck bakoitzak terrazako altzariak instalatu ahal izango ditu, antolatzailearekin aldez aurretik adostuta.

6. **Food Truck-ak autonomoak izan beharko dira funtzionatzeko. Ezingo dute inolako hornidurarik eskatu funtzionamendurako (elektrizitatea, ur hartunea…).**

## <u>CONDICIONES</u>

### 1. <u>Condiciones organizativas</u>

1. **Montaje y desmontaje:** El montaje se realizará el día 12 de agosto de 2023 a partir de las 12:00h. hasta su finalización. El desmontaje se realizará no más tarde del día 20 de agosto a las 12:00h.
   Cabe la posibilidad de montar y desmontar todos los días.

2. **Horario de apertura de la Food Truck:**
   12 - 19 de agosto: Apertura obligatoria: 17:00-02:00. Voluntaria: 12:00 – 17:00 h.

3. Se cuidará la **estética** del puesto para una mejor imagen de las fiestas. Se procurará decorar la Food Truck y su entorno.

4. La **ocupación** de espacio no traspasará los límites establecidos por la organización.

5. Cada Food Truck podrá instalar mobiliario de terraza, previo consenso con la Organizadora.

6. **Las Food Trucks deberán ser autónomas para su funcionamiento. No podrán requerir ningún tipo de suministro para su funcionamiento (electricidad, toma de agua…)**

7. Ez da ezer biltegiratuko edo utziko Food Truckaren kanpoaldean.

8. Derrigorrezkoa da **su itzalgailua** edukitzea Food Truck bakoitzaren barruan.

9. Kokalekua **garbi** mantenduko da.
Zaborrak, sailkatu ondoren, horretarako jarritako edukiontzietan utziko dira.
Garbitasun baldintza betetzen ez den egun bakoitzeko 200€ko isuna ezarriko da.

10. **Megafonia**: Donostia / San Sebastian Festak-ek programatutako ekitaldietan zehar esleipendunek ezingo dute euren megafonia erabili.
Jaurtitutako soinua ez da karrankaria izango eta Food Truck bakoitzari esleitutako espaziora mugatuko da.
Ezingo da soinu ekipamendurik erabili feria ireki aurretik eta feria itxi eta gero.

11. **Kartelak**:
Karteltzat ulertzen da idatzizko material oro, erabiltzaile kontsumitzaileari eskaintzen zaion zerbitzuari buruzko informazioa ematen diona (karta, erreklamazio-orria, elikagaien informazioa…) euskaraz eta gaztelerazidatzi beharko dira derrigorrez.

7. No se almacenará ni dejará nada en el exterior de la Food Truck.

8. Las Food Trucks deberán contar obligatoriamente con un **extintor** en su interior.

9. Se conservará la parcela en perfecto estado de **limpieza**.
La basura se depositará, previa clasificación de los residuos, en los contenedores instalados a tal efecto.
El incumplimiento del requisito de limpieza por parte del concesionario supondrá una sanción de 200€ por día de incumplimiento.

10. **Megafonía**: No podrá utilizarse megafonía propia durante el desarrollo de los actos programados por Donostia / San Sebastián Festak.
La emisión de sonido no será estridente y abarcará únicamente el espacio concedido a cada Food Truck.
No podrán utilizarse los equipos de sonido en ningún caso antes de la hora de apertura de la feria ni más allá de la hora de cierre de la misma.

11. **Cartelería**:
Todo material escrito que informe al usuario consumidor sobre el servicio que se ofrece (carta, hoja de reclamaciones, información alimentaria…)
deberán redactarse en euskara y español obligatoriamente.

IFK-CIF Q2000541I

## 2. Osasun arloko baldintzak

1. Baimendutako **produktuak** saldu ahal izango dira bakarrik. Kontuan izan edarien salmentak lehentasuna izango duela, elikagaiak ere batera saldu daitezke.

2. Bertan erabiliko den **ontziteria** behin erabiltzeko eta biodegradagarria izango da.

3. Elikagaiak ematen badira, manipulatzeko beharrezkoak diren erreminten hiru ordezko oso behar izango dira.

4. Food trukck-ek osagai kimikorik gabeko **intsektuak hiltzeko aparatuak** eraman behako dituzte.

## 2. Condiciones sanitarias

1. Sólo podrán ponerse a la venta los **productos** para los que se haya concedido la autorización. Teniendo en cuenta que la prioridad la tendrán las bebidas, que podrán acompañarse de alimentos.

2. La **vajilla** a utilizar será de uso desechable y biodegradable.

3. En caso de expender alimentos, se requerirán tres recambios completos de utensilios necesarios para la manipulación de los alimentos.

4. Las Food Trucks deberán estar provistas de **aparatos insectocutores** de naturaleza no química.


**Donostia / San Sebastián Festak**
Konstituzio plaza, 1 • 20003 Donostia / San Sebastián
tel (0034) 943 481 168 • faxa 943 481 177
donostiakofestak@donostia.eus
www.donostiakultura.eus/festak

## 3. Ingurumen baldintzak

1. **Birziklatzea**: Olioa edo antzekoak lurrera bota edo isurtzea saihestuko da (lurra estaliko da). Ezingo da kristalezko edalontzirik erabili.

2. **Edlontziak**: Edariak saltzeko edalontzi berrerabilgarririk edota biodegradagarririk ez badituzte, 2023ko Aste Nagusian parte hartuko duten Food Truck-ek derrigorrez eta esklusiboki, antolatzaileek emango dizkieten edalontzi berrerabilgarriak erabili beharko dituzte.

   Esleipendunek behar dituzten edalontziak eskatu diezaiekete antolatzaileei, beti ere 375eko (400 zk-koak) multzotan. Antolakuntzak dituen edalontzi kopurua aztertu ondoren, eskatzaile bakoitzari dagokion edalontzi kopurua banatuko dio, eta honek euro bat ordaindu beharko du jasoko duen edalontzi bakoitzeko. Edalontzi horiek edari guztietarako erabili beharko dira. Edalontzi bakoitzeko, Donostia/ San Sebastian Festak-i ordaindutako kopuru bera kobratuko dute, hau da, 1 €.
   Antolakuntzak edalontziak jasotzeko puntu bat jarriko du; esleipendunek, edalontzi gehiago behar dituztenean, bertara jo ahal izango dute eta unitate bakoitzeko euro bat ordainduta eskuratu ahal izango dituzte. Aste Nagusia amaituta, saldu ez dituzten edalontziak aipatutako guneetan itzuliko dituzte, jatorrizko kaxetan, zenbatuta eta garbi. Aipatua abuztuaren 21 igandean egingo dute, ezarritako ordutegian.
   Donostia/San Sebastián Festak unitateak, itzulitako edalontziak zenbatuko ditu eta, itzuli dituen taldeari, zenbatutako kopuruari dagokion ordainagiria emango dio (garbi, lehor eta berrerabiltzea galarazten ez duen kalterik gabeko edalontzien kopurua). Itzulitako edalontziei dagokien ordainketa esleipendunak emandako kontu korrontean egingo da.

## 4. Erabiltzaileen eskubideen errespetua bermatzeko baldintzak

1. **Ordainketak:** Faktura bana egingo da salmenta bakoitzeko. Datafonoak eskainiko dira ere, ordainketa elektronikoak egiteko aukera izan dezaten erosleek.

2. **Dokumentazioa:** Food Truck bakoitzak Euskal Autonomia Erkidegoko erreklamazio-orriak izan beharko ditu bezeroen eskura, bai eta beren produktuak dituzten alergenoei buruzko informazioa ere.

## 3. Condiciones medioambientales

1. **Reciclaje**: Se evitará cualquier tipo de vertido (aceite y similares) al pavimento (colocar protectores en el suelo). No podrán utilizarse vasos de cristal.

2. **Vasos:** En caso de no contar con vasos reutilizables y/o biodegradables para expender sus bebidas, las Food Trucks que se instalen en la Semana Grande 2023 deberán utilizar, ineludiblemente y de forma exclusiva, los vasos reutilizables que en número suficiente les serán entregados por la organización.

   Las adjudicatarias podrán solicitar a la organización los vasos que precisen en números múltiplos de 375 (400 cc). La organización, comprobadas las existencias de vasos entregará a cada solicitante el número que le corresponda, debiendo éste abonar un euro por cada uno de los vasos a recibir. Estos deberán utilizarse para las diferentes bebidas, cobrándose por ellos la misma cantidad abonada a Donostia/San Sebastián Festak, esto es, 1€.

   Donostia/San Sebastián Festak instalará un punto de aprovisionamiento de vasos; las adjudicatarias podrán acudir al mismo cuando precisen nuevos vasos, en el horario que se establezca, retirándolos previo pago de 1€ la unidad. Una vez finalizada la Semana Grande, los vasos que no se vendan serán devueltos en el citado punto, en sus cajas originarias, contados y limpios, el domingo 21 de agosto en el horario que se establezca.
   Donostia/San Sebastián Festak recontará los vasos devueltos y entregará al adjudicatario correspondiente un recibo con la cantidad computada. (Número de vasos devueltos, limpios, secos y sin daños que impidan su reutilización) El abono de la cantidad correspondiente se realizará en la cuenta corriente facilitada por el adjudicatario.

## 4. Condiciones derivadas del respeto a los derechos del consumidor

1. **Pagos**: Se exigirá la emisión de facturas en cada venta, así como la aportación de datáfonos que garanticen al comprador la posibilidad de realizar los pagos electrónicamente.

2. **Documentación**: Cada Food Truck deberá contar con Hojas de reclamaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco a disposición de la clientela, así como

IFK-CIF Q2000541I

información sobre los alérgenos que contienen sus productos.

3. **Informazioa:** Eskaintzen diren produktuak bere salmenta-prezioekin azaltzen diren kartel elebidunak jarriko dira. Ondokoak ere jarriko dira ikusgai:
   - Adingabeei alkohola saltzeko debekua.
   - Erreklamazio-orrien existentzia
   - Alergenoen informazio zerrenda.

   Beste herrialde batzuetatik etorritako jende asko inguratzen denez feriara, informazio-kartelak frantsesera eta ingelesera itzultzea gomendatzen da.

3. **Información**: Se colocarán carteles bilingües indicadores de los productos que se ofrecen con sus respectivos precios de venta al público. Así como los que hacen referencia a:
   - La prohibición de vender alcohol a menores
   - La existencia de Hojas de reclamaciones
   - Listado informativo de alérgenos.

   Dada la gran afluencia de público procedente de otros países a la feria, se recomienda la traducción de los carteles informativos a los idiomas francés e inglés.

## INTERPRETAZIOA

Parte hartzearen eskabidea aurkezteak ARAU HAUEK GUZTIAK onartzea dakar. Arauak interpretatzerakoan zalantzarik izanez gero, feriaren antolatzaileek ebatziko dute.

## INTERPRETACIÓN

La solicitud para la participación supone la total aceptación de las presentes CONDICIONES. Cualquier duda sobre su interpretación, corresponderá resolver a la Organización de la Feria.

## ARAU HAUSTEAK

Oinarri hauetan aipatutako edozein baldintza ez betetzeak Food Truck-a kentzeko aukera emango die antolatzaileei, bai eta 2024ko ferian parte hartzeko debekua ezartzeko ere.

Osasun arloko baldintzen ez betetze larriek Food Truck-aren itxiera ekarriko dute feriako gainerako feria egunetarako.

Antolatzaileek dagokion espedientea ireki, parte-hartze kuota gorde eta, arau-haustearen ondorioz, etorkizuneko ekitaldietatik at utz lezakete enpresa.

## INCUMPLIMIENTO

El incumplimiento de cualquiera de las condiciones expresadas en estas bases conllevará la retirada del correspondiente permiso de instalación de la Food Truck y la imposibilidad de participar en la feria el año 2024.

El incumplimiento grave de los requisitos sanitarios supondrá el cierre de la Food Truck para el resto de la feria.

La Organización abrirá el expediente oportuno, retendrá la cuota de participación y podrá como consecuencia del incumplimiento determinar la imposibilidad de participación de la empresa en próximos eventos.

## APLIKAGARRIAK DIREN ARAUDIAK

- Ikuskizun publiko eta jolas jarduerei doakien Abenduaren 23ko 10/2015
- Apirilaren 7an 1/2016an Adikzioen eta droga menpekotasunen gaineko arreta integralari buruzkoa.
- Donostiako adikzio plana 2017-2021.

## NORMATIVAS DE APLICACIÓN

- Ley 10/2015 de 23 de Diciembre, de espectáculos públicos y actividades recreativas
- Ley 1/2016, de 7 de abril, sobre Atención Integral de Adicciones y Drogodependencias.
- Plan de adicciones de Donostia/San Sebastián 2017-2021.

IFK-CIF Q2000541I

donostiakultura

**Donostia / San Sebastián Festak**
Konstituzio plaza, 1 • 20003 Donostia / San Sebastián
tel (0034) 943 481 168 • faxa 943 481 177
donostiakofestak@donostia.eus
www.donostiakultura.eus/festak

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

- Euskararen Erabileraren Normalkuntzari buruzko 10/82 Oinarrizko Legea.
- Donostiako Udaleko Euskararen Erabileraren Normalkuntza Plana
- Donostiako Udaleko emakume eta gizonen Berdintasunerako IV. Plana 2020-2024.

Debekatua dago alkohola 18 urtez azpikoei saltzea. Food Truck-etan edariak zerbitzatzen lanean diharduten guztiek 18 urte edo gehiago izan beharko dituzte. Agintari eskudunak, edozein unetan, NANa eskatu ahal izango die goian aipatutakoa betetzen ari diren ala ez egiaztatzeko.

- Ley Básica 10/82 de Normalización del Euskera.
- Plan vigente de Normalización del Uso del Euskera del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián.
- IV Plan para la Igualdad entre mujeres y hombres 2020-2024 del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián.

Queda terminantemente prohibida la venta de alcohol a menores de 18 años. Todos aquellos que participen en las labores de servicio de bebidas en las Food Trucks deberán ser mayores de 18 años. La autoridad competente podrá en cualquier momento solicitarles la exhibición del DNI para comprobación de lo anteriormente establecido.

Donostia/San Sebastián, martxoa 2023 marzo

IFK-CIF Q2000541I